

SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua bezero segmentu batzuen berariazko beharretara egokitzen da. Sektore hauetan hainbat adineko pertsonak egongo lirateke , baina batez ere gure negozioa haien lagunekin aisialdian egoteko leku bat biltzen duten gazte taldeei, ikasleei, lana taldean egin behar duten edo bakarrik egoteko leku bat bilatzen duten ikasle-taldeei, ospakizunak egitea nahi duituzten pertsonen eta ordenagailuarekin edo ofizinako lanean aritzen diren pertsonen zuzenduta dago.

Beraz, lokala hainbat pertsonen beharrentzat zuzenduta egon daiteke:

- **Aisialdirako denbora pasatzeko bezeroak**→ Demagun A pertsonak edo pertsona talde batek arratsalde batean lokala alokatzen duela, lagunekin egoteko kalean eurrat dagoelako, orduan web-aren bidez erraza izango dute lokala alokatzea, nozki momentu horretan ez badago okupatuta. Gainera, lokalean ez dute hotza pasako eta gure zerbitzu bereziak erabili ahal izango dituzte; gure konsolak, telebistak, futbolina, saskibaloiko jokoak... eta bezero talde desberdinen artean txapelketak egin dezakete, web-aren bidez kontaktuan jarri ahal direlako eta aktibitateen bat elkarrekin egin. Bezero talde hauek 14-20 urte arteko gazteak izango dira gehien bat.
Hauen beharrak izango lirateke:
 - leku bat behar izatea denok elkarrekin egoteko
 - hotza ez izateko toki bat
 - aisialdian aktibitateak egiteko leku bat izatea
 - internetera konektatzeko beharra
 - bozgorailuak musika entzuteko
- **Ospakizunak edo talde bileraren bat egiteko lekua bilatzen duten bezeroak**→ Bestalde, B taldea daukagu, hauek urtebetetze bat ospatu nahi dute. Ordea, ez daukate ez sozietaterik ezta lekurik ospakizuna egiteko. Hori dela eta, gure lokalari joko dute, guk eskeinitako zerbitzuak aprobetxatzeko. Hauek izan daitezke, lokaleko mikrouhina labea, mahai handia, aisialdirako jokoak etab. Gainera gure lokala kokatuta dagoen inguruan badaude jatetxe eta taberna batzuk hala nola telepizza, kebab Nieves Cano, Bodegas Odei eta Iratzo tabernak... Halaber, guk elkartuko garen enpresen artean, ospakizunak prestatzen dituen enpresa bat egongo da, beraz gure lokala alokatuz gero eta nahi izanez gero, enpresa horri esan ahalko diogu lokala prestatzea, janaria eskartzea...
Hauen beharrak izango lirateke:
 - leku zabal bat jendea biltzeko
 - mahai handi bat duen lokala ospakizunak prestatzeko
 - bozgoragailuak musika entzuteko
- **Talde lanak egiteko bezeroak**→ Beste adibide bat bezala, C taldea hartuko dugu. Hau pertsona talde bat da eskolarako lan bat egin behar duena.

Liburutegira ezin dira joan ideiak eztabaidatu behar dituztelako eta liburutegian ezin dutelako hitz egin. Beraz, gure lokalera joango dira eskeitzen ditugun zerbitzuak aprobetxatzeko. Talde honek gehien bat astelehenetik ostegunera alokatuko luke lokala, hala ere, lokala libre dagoen edozein egunean joan ahal dira.

Hauen beharrak izango lirateke:

→ leku zabal bat taldean ikasteko

→ haiek bakarrik egon ahal diren leku bat, besteei ez molestatzeko eta haien artean hitz egin ahal izateko.

→ mahaia eta aulkiak.

→ interneta zerbitzua

- **Telelana egin nahi duen pertsona**→ Azkenik D bezeroa hartuko dugu adibide bezala. Hau langile bat da telelana edo ofizina lana egin behar duena. Gure lokalean ez du izango distraxiorik eta leku eroso bat izango du lanean aritzeko, gure wifi zerbitzua erabiliz. Gainera lanaldi etena badu, bere etxean bezala egongo da, mikrouhin bat izango du janaria prestatua berotzeko, kafe makina bat kabe bat hartzeko eta nahi izango balu sofan etzan ahal izango da telebista ikusteko.

Hauen beharrak izango lirateke:

→ Leku baketsu bat

→ Internetera konektatzeko beharra

→ Isolatuta egoteko toki bat non lanean zentratzea erraza izango zaio